

TOKIKOM

2016ko urtarrila | 155. zenbakia

ailkor!

txoriealdizkaria



Atleta
nekaezina

ANARI | NAUTERIAKA | AZERI | NATURA | DAT | DONOSTIA | NGAILUR | MENDI | TALDEA



TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txorierrri" B.H.I. (Derio)

Tel.: 944 543 258

Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"

Herri Ikastetxea (Sondika)

Tel.: 944 531 020

Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 246

Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 163

MATRIKULA
Urtarrilaren 25etik
Otsailaren 2ra

-  **4** Eritxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Paquita eta Pepi, kafea hartzen
-  **12** Gurean izan da... Anari, musikaria
-  **14** Gaztea eta... Iván Pérez, produktorea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Julen Larruzea, atleta
-  **22** Inauteriak, Txorierriin
-  **24** DAT, Donostian
-  **26** Azeri Natura proiektua
-  **28** Osasuna... Zaindu, modu errealista batean
-  **30** Elkartek... Gailur mendi taldeak, 25 urte
-  **32** Txorierri ezagutu... Derio eta burdina
-  **34** Berbalagunen txokoa
-  **35** Aikorrizketa... Institutua eta Baserri Antzokia (II)
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 Inauteriak



26 Azeri Natura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Gaizka Peñafiel, Miguel Ángel Lekue "Txirri", Pedro
Landeta, Karraderan elkarte, Jon Goikouria Larrabeiti, Jose Angel Men-
txaka, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
nen edota eritzien erantzukizunik.

Catalunya maite dot

Askatasuna maite dot; eta horregaitik, munduan askatasunaren alde borrokan dabilzan personak eta herriak. Eta zeozer maite dozunean, askatasuna nire kasuan, beste zeozer gorroto dozu: inposatzen eta itoten ahalegintzen diran personak, erakundeak edo dana dalakoak. Espainia eta Frantzia, kasu honetan, estatu horreek biek osatzen daben estruktura politiko-militarrak nire herria, Euskal Herria, baita Catalunya be, itoten dau-eta.

Catalunya maite dot eta ez da maite-tasun idilikoa, izan be, 19 urtez, nire lanagaitik euki dot hartu-emon zuzena herrialde horregaz. Nortasun handiko pertonez osatua dago: langileak, zintzoak, berbadunak... euskaldunongandik diferenteak, baina gurekiko maitetasun sentimentua handia daukienak. Pasadizu bat kontauko dot. Behin, goizaldeko hirurak aldera, Olot ondoko herri txiki baten nengoan. Beste herri batera joan behar neban eta bidekurutze baten nengoala ez nekian zein bide hartu. Handik agertu zan bati galdetu neutsan. "Biak doaz herri horretara, baina ezkerrekoa hartuz gero, 27 kilometro gitxiago dira. Halanda be, bide estua da eta baten bat beste norantz-kotik badator, larri ibiliko zara". Denpora aldetik justu nenbilen; beraz, aurrera. Kilometro batzuetara auto bat, elegantea, azaldu zan aurretik eta ez egoan pasetako lekuri. Gidaria autotik jaitsi eta

halan esan eustan: "Euskalduna zaralako; osterantzean... (Bilboko matrikulea neukan)". Autora sartu eta lupetzez betetako estarta batetik joan zan.

Politikoki asko aldatu da Catalunya azken urteotan. Diada ospatzen, 8-9 aldiz egon naz eta han 10 mila lagun inguru batzen zan. Baina baten batek lan ona egin ei dau, azken Diadatan 1,5 milioi personatik gora batu dalako. 2015eko iraileko hauteskundeen ondorioz, 72 parlamentari, independentziaren alde (62, Junts pel Sí-koak; eta 10, CUP-ekoak); eta 63, unionista espainiarrak. Eztabaida sakonak, Mas presidente bai ala ez... eta tartean, Madrilako Kongresurako hauteskundeak.

Eztabaida Euskal Herrira be zabaldu zan; eta zelan ez, Larrabetzura be bai. Eztabaida sutsuan ibili gara plazan, tabernetan eta etxeetan, eta batzuetan haserre be egin gara. Urtarrilaren 9an, presoen aldeko Bilboko manifestazinora joateko autobusa hartzera ginoiazala, Junts pel Sí eta CUP akordiora iritsi ziran barria

*Askatasunean sinisten
dot, eta persona eta
herri guztiek horretarako
daukien eskubidean*



MIGUEL ANGEL LEKUE "TXIRRI"
(Garraiolaria)

zabaldu zan. Eta lagun biok erabagi genduan hurrengo egunean Catalunya Parlamento joatea. Zergaitik? Katalanen poza eta ilusinoa partekatu gura gendualako, herri libre baten sorreran parte hartu, eta katalan politikarien ausardia eta erabagia txalotu eta zoriondu. Askatasunean sinisten dogulako, eta persona eta herri guztiek horretarako daukien eskubidean. Egun historiko horrek Europar Batasunean eztabaida sortuko daualako. Eta Espainiako alderdi guztiak larri ipini diralako.

Pozik nago, baina ez naz inozoa eta badakit Espainiak ez dauala arazo hau bertan behera itxiko. Eta batez be guzurra erabiliko dauala. Euskaldun guztiok erne egon behar dogu alkartasuna adierazoteko. Katalanek *Euskaldunon Egunkariari* emondako babesa gogoratu behar dogu. Gora Catalunya askatua! Visca Euskal Herria Iliure!

Bokazioa ala okasioa

Orain dela gutxi, eskolako andereño batek merezitako erretiroa hartu du, Lezaman mende laurden bat baino gehiagok klaseak eman ondoren. Horrek zer pentsatua eman digu askori, orokortze-ariketa bat eginez, datozen belaunaldietan nabaritzen den konpromiso krisia ikusita. Gizarteko esparru guztietan ikus dezakegu, baina inon inplikazioa behar-beharrezkoa bada, irakaskuntzan da hori.

Askorentzat, bizitza eroso izateko okasioa da; lasai antzekoa, soldata ona, opor luzeak... baina ez litzateke horrela



GAIZKA PEÑAFIEL
(Irakaslea)

atzeman beharko. Irakasle lana ofizio garrantzitsuegia da horretara dedikatzeko erabakia nolanahi hartzeko, osotasunean bizitzeko, bokazionala izan behar duelako. Are gehiago umeekin lan egitean; bihar etziko emakume eta gizon horien zimen-dua garai horretan taxutzen baita.

Bokazioz maisu-maistra dena gehienetan motibazio pizgarri, ilusio sortzaile eta maitasun iturria izango da. Azken batean, irakas-ikas prozesuan, haurra inguru atseginean egon behar delako, maitatua sentitu behar delako... gu Lezaman betidanik sentitu izan garen bezala.

Eskerrik asko andereño Isa, ehunka lezamarrongatik egin duzun guztiagatik.

Bikainak!

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarte-en Federazioak Bikain Euskararen Kalitate Urrezko Ziurtagiria lortu du. Hori ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, eta Eusko Jaurlaritzak urtero ematen die hala eskatzen duten enpresei eta erakundeei, bertan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatu ondoren. Hiru maila daude: urrezkoa, zilarrezkoa eta oinarritzakoa, eta TOTOANek lehenengoa lortu du, altuena, hain zuzen ere.

Sortu zenetik, TOTOANek konpromisoa hartu zuen euskararekin eta bikaintasunarekin. Eta horregatik eskatu zion Eusko Jaurlaritzari azterketa, ziurtagiria



lortzeko. Horrela, TOTOANek agerian utzi du euskara, lehenetsuna baino, izateko arrazoi bakarra dela. TOTOANeko lagunok euskaraz

bizi nahi dugu, eta, zailtasunak zailtasun, euskararen alde jarraituko dugu lanean. Ziurtagiria akuilutzat baino ez dugu hartzen, norabide zuzenean gaudela adieraziko baligu moduan.

Ziurtagiria lortzeko bideari urte hasieran ekin genion. Lehenik eta behin, izapideak egin genituen Eusko Jaurlaritzan. Ondoren, guri buruzko azterketa txikia aurkeztu behar izan genuen. Eta azkenik, Bikain ziurtagiriaren begiraleek bisita egin ziguten, azterketa erakundean bertan zuzenean egiteko. Haiek arlo batzuk aztertu zituzten: erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo zein barne harremanak, hizkuntza kudeaketa... Bitartean, heziketa saio batzuk jaso genituen. Izan ere, gure langileetako bat aztertzaile izateko ere trebatu zen, beste enpresa batean Bikain ziurtagiriaren aztertzaile aritzeko.

Ekitaldi publikoa

Aztertzaileen txostena jaso eta gero, ekitaldi ofiziala da azken pausoa. Aurten goa abenduaren 21ean egin zen Gasteizen. Sarituez gain, erakunde publikoetako ordezkariak egon ziren han: besteak beste, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua, eta Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako Sailburuordea.







Guillermo Bengoetxea
Ingeniaritza biomedikoa, 2. maila

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · URTARRILAK 30
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ARRASATE · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 30
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI · OTSAILAK 4
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

BILBAO · OTSAILAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITZA · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETAKO · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 11
OSTEGUNA, 18:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest

Txarriboda/ bertso-afaria

Lauroetan antolatu dute otsailaren 26rako. Aurreko urteetan bezala, gaueko 9etan izango da Aurregoiti jatetxean, eta bat-batean Igor Elortza eta Arkaitz Estiballes bertsolariak arituko dira. Afariak 26 euro balioko du eta txartelak lortzeko, telefono hauetako batera deitu ahal da: 649 49 71 47 (Iñaki); 94 453 37 86 (Juanxu); eta 94 453 24 40 (jartetxea).

Jostailuak batzeko kanpaina

Kanpaina Zamudion ipini dute abian eta jostailuak otsailaren 8tik 22ra arte jasoko dira eskolan eta Udaletxean. Jostailuak herriko eta Marokoko ume babesgabeen artean banatuko dira; beraz, egoera onean dauden eta erabiltzen ez diren jostailuak aipatutako lekuetara eramatea eskertuko dute antolatzailerak.



Bazkidetza kanpaina ipini du abian Gure Esku Dago plataformak

Herri dinamikako kideek azaldu duten bezala, kanpaina sustatu dute "ireki berri dugun erabakiaren aroa bururaino eramateko". Euren ustez, herritarren protagonismoa eta parte-hartzea erabakira iristeko bermerik onena dira, eta protagonismoa eta parte-hartze horren topagunea Gure Esku Dago da. "Orain artean mila modutan dinamikan parte hartu duten herritar guztiei bazkidetzeko gonbidapena egiten diegu, orain artean bezala, elkarrekin osatzen dugulako Gure Esku Dago". Aipatu dutenez, "erabakitzeko es-

kubidea garrantzitsuegia da soilik alderdi politikoen esku uzteko, eta herritarrok ezinbesteko protagonismoa dugu aldarri horretan. Herritarren erabakia baitago jokoan, herritarren bultzadarak gabe, nekez gauzatuko dugu erabakitzeko esku-biderik".

Bazkide egiteko, aukera bi daude: alde batetik, Txorierriko herri batzordeekin harremanetan ipini eta bazkide-fitxa bete; eta bestetik, bazkidetza webgune honetan egin: sarea.gureeskudago.eus/eu/bazkideak.

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

ile-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak
944522910 - 865703312 - 652772016

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntata:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

BIDE-GORRI
Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea
Txirbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

luz zamudio
ARGI APARATUAK
Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Gerra Zibileko hiru borrokalariren gorpuzkiak lurpetik atera dituzte Larrabetzun

a: Karraderan elkartea

Karraderan Larrabetzuko elkartea memoria historikoa berreskuratzeko lanean hasi zen orain dela urte batzuk. Ildo horri jarraituta, Aranzadi elkartarekin eta Larrabetzuko Udalarekin sinatu zuten akordio bat iazko martxoan. Francoren tropek, Bilbori eraso egiteko, Burdin Gerrikoa suntsitu zuten 1937ko ekainean, eta inguruan hainbat borroka egon ziren. Karraderan elkartekoek landa-lana egiten dute; hau da, mendian zehar ibiltzen dira arrasto eta gorpuzki bila, eta Aranzadi-koak haiek aztertzeaz arduratzen dira. Urtarrilean, hiru borrokalariren gorpuzkiak atera dituzte lurpetik.

Aranzadi-koek ezin izan dute jakin nortzuk ziren hiru borrokalarietako bi, baina jakinarazi dute urtarilaren 16an, Urkullu mendian, lurpetik ateratako gorpuzkiak Ramón Portilla Acedorenak direla. Portilla CNT-ko Celta batailoiko milizianoa zen.

“Ez genuen espero hain denbora-tarte laburrean topatzea hiru lagunaren gorpuzkiak. Harrituta eta apur bat hunkituta gaude, izan ere, Ramón Portillaren arreba bizirik dago oraindik. Laurogeita hamar urte ditu eta gure lanari esker izan du nebaren berri. Pozik gaude gure lana frutuak ematen hasi delako. Azken batean,

guk helburu bi ditugu: alde batetik, Larrabetzun Gerra Zibilaren eta Lehen Frankismoaren ikerketa zientifiko bat egitea; eta bestetik, Burdin Hesiaren balioa azpimarratzea. Gorpuzkiak topatzeak aurrera jarraitzea animatu gaitu. Gainera, publizitatea ekarri digu eta gero eta jende gehiago etorri da guri laguntzeko prest. Gurea herrikideen proiektua denez, laguntza beti da mesedegarria”, esan digu Ainhoa Larrabek, Karraderan elkartetik.

“Oraindik lehenengo pausoak baino ez ditugu eman. Gauza pilo bat topatzen gabiltza, eta oraindik ez gara Gaztelumendin hasi”, adierazi du Ainhoak. Arrastoak bilatzea ez da Karraderan elkartekoek egiten duten gauza bakarra. Ibilbide kulturalak prestatzen ere bada biltza eta espero dute Aste Santurako lehenengoa irekitzea. Ibilbide horretan lubaki eta metrailadore bat ipiniko dituzte ikusgai eta argibide-taulak ere jarriko dituzte.



ASADOR FUENTENEberria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZATZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

ERREKA JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

GAMINIZ JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

“Mikel Zarate” Haur Literatura Saria

Saria zaspigarren aldiz antolatu da, eta lanak apirilaren 30era arte bidali ahal dira Lezamako Udaletxera. Oinarriak lezama.org webgunean ipini dituzte eskuragarri. Era berean, liburutegira jo daiteke: 94 455 61 26; liburutegia@lezama.org. Iaz 19 lan aurkeztu ziren eta irabazlea Arrate Egañaren *Patioan* lana izan zen.

Putxera txapelketa

Bosgarren aldiz antolatu da Loion urtarilaren 30erako. Izena ematea goizeko 9etan egin behar da eta putxerak 13:30etik 15:00era bitartean aurkeztu. Parte-hartzaileek osagai hauek erabili beharko dituzte: indaba gorriak, saiheksia, odolostea, urdaia, txorizoa, berakatzia, kipula, piperra, porrua eta azenarioa. Hogeita bost sari emango dira; haien artean, 290 euro, txapela eta urrezko garaikurra, irabazlearentzat. Bigarrenak 250 euro eta zilarrezko garaikurra jasoko ditu saritzat; eta hirugarrenak, 200 euro eta brontzezko garaikurra. Indaba onenak aurkeztu dituen loiuztararentzat ere egongo da saria, putxera bat hain zuzen ere. Besteen artean, garaikurrak, ardoa eta txakolina banatuko dituzte. Bestalde, erromeria egongo da eguna borobiltzeko.

Quad Trial probak zapore ona utzi zuen Zamudion

Proba Zamudio Racing elkarteak antolatu zuen lehenengo aldiz, urtarilaren 16an eta 17an. Zapatuko ekitaldian 15 parte-hartzaile egon ziren eta hainbat oztopori egin behar izan zieten aurre, beren trebetasuna erakusteko. Umeek be quad-ez ibiltzeko aukera eduki zuten. Bestalde, domekan, ibilbidea egin zen Bizkargi eta inguruko mendietatik eta horretan 60 lagun inguru aritu ziren. Parte-hartzaile gehienak Bizkaikoak izan ziren, baina Araba eta Errioxatik ere etorri ziren lagun batzuk.



Elkartetik azaldu duten moduan, urtarrilekoa entsegu bat izan zen, ekintza ea nola aterako zen, eta beraz, ez da egon ez irabazlerik, ez galtzailerik. Eta emaitzarekin oso pozik daudenez, datorren urtean ere antolatzeko asmoa dute. Era berean, herritarren konpromisoa azpimarratu dute. “Bat egin dute elkartearekin eta parte-hartze handia daukate antolatzen diren ekintzetan. Beren ekarpenak ere egiten dituzte gauza berriak egiteko eta hori eskertzekoa da. Babesleek emandako laguntza ere ezinbestekoa da”.



Argazkiak: Pedro Landeta.

RPS/184/11

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Magafarte txakolina

Iñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

ARITXABALETAKO HORDA ETA NITELAROTIA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



Entrenatzaile euskaldunen lana eskertu zuten Derion

a: Koikili aterpetxea

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkar-teen Federazioak, Itzarri aholkularitza enpresak eta Txorierriko Zerbitzuen Man-komunitateak "Futbola oinarritik euska-raz" egitasmoa ipini zuten martxan 2010. urtean. Egitasmoak futbol entrenatzaile euskaldunak trebatzea du helburu, eta euskara entrenamenduen eta partiden hizkuntza bihurtzea. Txorierriko entrena-tzaileek eta klubek hasieratik egin dute bat eskolarekin, eta asko trebatu dira ber-tan.



Iaz, euskalduntze prozesuan parte hartu zuten entrenatzaileen lana jendau-rrean eskertzeko, ekitaldi bat egin zen Politeknika Ikastegia Txorierrin, aben-duan. Zehatz-mehatz, talde hauetako en-trenatzaileek jaso zuten esker ona: Son-dika KE, Derioko Arteaga FT, Lezamako Biziak KT, Zamudio KE eta Larrabetzuko Urriarra KT. Ekitaldian Iraia Iturregi eta Ainhoa Tirapu Athleticeko jokalaria izan ziren, eta eskolan aritu diren talde gazte-ek partidatxoak jokatu zituzten. Ekital-diaren bideoa AIKOR! aldizkariaren Face-booken dago ikusgai.

GOIALDE

Pelukeria
Estetika

94 455 81 44

Angulen 2. behea Larrabetzu-Bizkaia

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osueta-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-PLANTEAK - ORTUDONTZA-ESTETIKOA
DENTURAK ZINBILDUNAK

Dr. Arreda kalea, 11 - 1. ezk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 453 13 70

ANKAPALU

LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Etxeandiak bederatzi urte emon eban iheslari, eta Mexikon egoala, hango poliziak atxilotu eban 2003. urtean, legez kanpoko egoiliarra zala argudiatuta. Herriatik bota eta Estadura ekarri eben, Guardia Zibilaren esku ixteko. Larrabetzuarra hiru egunean bakartu eben, eta salatu eban denporaldi horretan tratatuak jaso ebazala. Salaketea artxibatu egin zan. Soto del Realeko kartzelara eroan eben eta epaiketea handik urte bira izan zan. Hamabi urtean zazpi kartzelatan egon da; Aranjuez, Mansilla de las Mulas (Leon), Herrera de la Mancha eta Burgos, tartean.

Larrabetzuarrak nahasmendu obsesibo-kompulsiboa dauka eta Herrera de la Manchako kartzelan egoala, hango medikuak txosten bat egin eban, eta han adierazi eban, bere gaixotasuna zala-eta, Etxeandia ezin zala lehen graduari egon. "Bigarren edo hirugarren graduari emoteko gomendioa egin eban, eta Alcalara eroan. Urte eta erdian izan nintzan Alcalan eta bigarren graduari emon eusten bertan. Handik Burgosera eroan ninduen; eta Burgosetik Topasera. Hasieran, bigarren graduari euki neban han be bai, baina istilu bat euki neban funtzionario batek eta urte bira bakartu ninduen". Etxeandiarren psikologoaren ustez, ez zan gomendagarria gaixoa bakartuta egotea, eta bigarren graduari emon eta etxetik gertuko kartzela batera eramateko aholkua emon eban, Burgosera edo Martutenera. Hori guztia txosten baten jaso eban. "Kartzelako tratamendu-batzarrak onartu eban txostena, baina

"Kartzelea eta gaixoa bateratuezinak dira"

JOSE MIGEL ETXEANDIA | aske Larrabetzun

Larrabetzuarra abenduaren 28an ateratu zan Topaseko kartzelatik (Salamanca), 12 urte eta sei hilabeteko espetxe-zigorra bete ostean; hau da, zigor osoa bete ondoren. Larrabetzuarrak ongi etorria emon eutsien egun horretan bertan, eta plazan ehunka herritar eta txorieritar batu ziran.

Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak uko egin eban, eta zigor osoa bete arte jarraitu neban Topasen, eta lehen graduari. Kate-mailarik ahulena preso gaixoa da eta berarengan egiten da presinoa".

Gehiago aktibau

Etxeandiarren esanetan, kartzelea ez dago prestatuta preso gaixoei arreta egotia emoteko. "Kartzelea eta gaixoa bateratuezinak dira. Eta edozein gaixotasun motaren inguruan ari naz, gainera. Gripa be harrapatu badozu, agur! Pentsa eizue, beraz, zerbait larriagoa badaukazu". Bere ustez, espetxe-zigor arindua, kontrol-unitate telematikoa bat erabilita, konponduta dago. "Baina PP alderdia Espainiako gobernuari dagoanetik ez jako inori espetxe-zigor arindua emon". Are

*Azken lau urteotan
espetxeko bizi-baldintzak
asko gogortu dira,
bere esanetan*

gehiago, aitatu deusku azken lau urteotan espetxeko bizi-baldintzak asko gogortu dirala. "Presoak etxetik urrunago eroan dira eta ez da kontzesinorik emoten. Kartzela barruan be sakabanatzea dago. Izan be, lehen, modulu baten, hiru zpalau euskal preso bagengozan; orain bi dagoz. Era berean, lehen graduari badaukazu, ezinezkoa da bigarrena eskuratzeari; baina bigarrenetik lehenera pasatzea, ostera, erraza da".

Urtarrilaren 9an manifestazioa egin zan Bilbon, presoaren eskubideen alde, eta Etxeandiak parte hartu eban bertan. "Babeseari inportantea da, baina nik neuk uste dot gizarteak oraindino gehiago aktibau behar daua, Gobernuari presionetako. Presoaren aldeko mobimenduak handiago izan behar dau eta mobilizazio gehiago egin behar dira. Euskal Herri osoarentzat da inportantea". Etxeandiak 21 urte eta hilabete batzuk emon dauz Larrabetzutik kanpo eta kartzelatik kanpo bizimodura ez ezik, herriko bizitzara be egokitzen dago. "Nasaitasunez hartu dot eta egokitzen astiro doa, baina ondo. Gauza barriak ikusten nabil, jentea agurtzen... eta dana da pizgarria. Gainera, pozik nago, kalean aukerea daukat Euskal Herriaren alde lan egiteko".





Paquita eta Pepi | Kafea hartzeko ordua

Kafea ordua da, eta Paquita eta Pepi López López elkarri begira daude. Hirurogeiko hamarkadan heldu ziren Bilbora, Alcalá de la Realatik (Jaen), eta Boluetan urte batzuk igaro ostean, 1966an, "etxe orratzean" kokatu ziren ahizpa biak. "Problemarik gabe ohitu ginen bertako bizitzara, Txorierriko jendea zoragarria baita", dio Pepik. Hirurogeita hamabost eta 87 urteko andreak elkarri lagunduz bizi dira eraikineko solairurik gorenean. Hegazkinen burrunbara ohitu dira eta hori gauza ona ez den arren, ez lukete euren bizimodua sekula ezergatik aldatuko.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio

Kemena.

Zure negozioaren bultzada

Publizitatea
eta eduki kreatiboak





✉ info@atomikastudio.com www.atomikastudio.com ☎ 94 656 99 05

“Oso jende gaztea dator gu ikustera; dagoen ederrena da hori”

ANARI | musikaria

Anari Gabonetan izan zen Hori Bai Larrabetzuko gazte-txean, *Zure aurrekari penalak* diskoa aurkeztzen. Azkoitiko abeslariaren bosgarren lana da.



Rock gordina

Hogei urteko musika ibilbidea duela, Anari (Azkoitia, 1970) nortasunik handiena daukaten Euskal Herriko abeslarietarik eta musikagile-etarik bat da. Nick Cave eta Bob Dylan bezalako musikariek eragina eduki dute berarengan, eta hasiera-hasieratik rock gordina eta poetikoa, emozioz betea, landu du. Musikan lehenengo urratsak Psych Out taldean eman zituen eta bateria-jole ibili zen han. Anari moduan 1997. urtean egin zuen debuta, izen bereko diskoarekin. Handik hona estudioko beste lau lan kaleratu ditu: *Habiak* (2000); *Zebra* (2005); *Irla izan* (2009) eta *Zure aurrekari penalak* (2015). Horiek guztiek kritika ezin hobekak jaso dituzte prentsa espezializatuen aldetik.

Ez da lehenengo aldia Larrabetzura etorri zarena... Gustura?

Oso. Batzu-batzuetan etorri naiz, baka-rik, taldearekin, Literaturia azokara... Oso gustura joaten naiz, eta taldea ere bai.

Areto txikia da, hurbila. Halakoak nahiago?

Txikia, baina nahikoa guretzat! Oso bildua da eta jotzen duenarentzat zein entzuten dagoenarentzat oso gertuko egiten da.

***Zure aurrekari penalak* diskoa joan den urteko maiatzean kaleratu zuten eta handik hona aurkezpenak egiten ibili zarete. Zelako harrera eduki du lanak?**

Oso harrera ona eduki du. Jende asko etorri da, eta dator, kontzertuetara, eta oso gustura gaude. Beste pausu bat eman da aurrera eta jendeak ere pausu hori gurekin eman duen sentzazioa daukagu. Beraz, ezin hobeto.

Diskoa aurkeztu zenuenean, esan zenuen gero eta gertuago zaudela az-

keneko urteetan nahi zenuten esateko eratik.

Azkeneko diskoan oso agerikoa da, nire ustez, hitzetan egon den eboluzioa. Bilakaera hori ez da aste batean erabaki eta egiten, aurreko ohituretatik atera behar zara eta, beste testuinguru batean, lehenengo eta behin zeure buruan sine-tsi behar duzu, eta gero, sinestarazi. Biak ala biak oso zailak dira eta oso prozesu gogorra izan da niretzat. Hortaz ari nintzen.

“Denborarekin, zeure buruari baino ez diozu erakutsi behar, eta hori askoz gogorragoa da”

Lehen diskoa, *Anari*, duela ia 20 urte kaleratu zenuen. Eta noski, bilakae-ra egon da handik hona, pertsona moduan zein artista moduan. Zelango sortzailea, musikagilea, zara gaur egun?

Norbera ez da onena horrelako analisiak egiteko. Jarrera bezala, esango nuke sortzaile orok zerbait ateratzen duenean besteei erakusteko dela; eta denborarekin, zeure buruari baino ez diozu erakutsi behar. Hori askoz gogorragoa da.

Publikoak ere eduki du bilakaera? Zelango sentzazioa hartu duzu eszenatik?

Hogei urtean jende askorengana hel-tzen zara, belaunaldi ezberdinengana. Pentsatu, hasieran 40 urte zituenak 60 ditu gaur egun. Eta orain hor aurrean dauden batzuk jaio gabe zeuden ni hasi nintzenean. Azkenaldiko sentzazioa da oso jende gaztea datorrela gu ikustera, eta hori ez da ederra, dagoen ederrena da.

**Bost urteko edo ia bost urteko tar-
tea dago zure disko batetik bestera...
Zer behar duzu sortzeko? Zein da zure
sortze-prozesua?**

Lehenengo eta behin, aurreko disko-
tik atera behar dut, distantzia hartu. Eta
horrek urteak eskatzen ditu. Orain jotzen
gabilta, eta normalean pare bat urte
luzatzen da kontzertuen kontua; hor has-
ten gara beste zerbaiten bila. Dena dela,
nire ustez, sortze-prozesua ez da gelditu
eta zerotik disko bat egitea. Denboran
zehar idatzi eta bildutako materialarekin
sortzen dut.

**Anari entzuten dugunean zeu etor-
tzen zara gure burura, baina zuk "Anari
gara" esan ohi duzu. Zein da taldearen
garrantzia? Taldekideen ekarpena?**

Dudarik gabe, Anari bi daude: bat tal-
dearekin, eta bestea bakarrik. Nik uste
dut talde moduan aritzen garenean, jen-
deak taldea identifikatzen duela. Beste
edozein talde bezala, soinua, kontzertua-
ren pisua... Horrek egiten du Anari tal-
dea.

**Zeintzuk dira epe laburrera edo er-
tainera taldeak dituen helburuak?**

Orain, jotzea. Jotzea eta egindako
lanaz gozatzea.

**Zure aurrekari penalak eta Irla izan
diskoak Bidehuts diskoetxearekin ate-
ra dituzue. Diskoetxea beste musikari
batzuekin sortu zenuten 2007. urtean.
Zelan doa?**

Gogorra da, lan osoa norberak egin
behar duelako, baina gero satisfazio han-
dia ematen du norberak egin izanak.



bai euskarari
Bai Euskarari
Zure lagina,
eta euskararen erabilera:
euskararen erabilera

Zure lagina euskarari
bai euskarari
urrats biziak

Twitter Facebook YouTube

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34

Barrea eragiteko bokazioa



Ezkerretik eskuinaldera, Iván Pérez, José Andrés (Cruz y Raya) eta Aitor Vidaurreta.

IVÁN PÉREZ | *Encomediados* zirkuituaren produktorea

Encomediados lehen lerroko komikoak batzen dituen umorezko zirkuitua da, eta Txorierrin, Derion hain zuzen ere, urtarilean egon da lehen aldiz. Derioztar gaztea egitasmoaren produktoreetako bat da eta pozik azaldu da publikoak emandako erantzunagatik. "Harrigarria. Aretoa leporaino bete zen eta badakigu batzuk sarrera barik lotu zirela".

t: Itxaso Marina

José Andrés (Cruz y Raya) eta Juan Muñoz komikoek hasiera eman diote *Encomediados* biraren barruan Derion egingo den umorezko gau-sailari. Horrela, bada, otsailean Xabier Deltell (*Cronicas Marcianas*) eta José Campoy (*Sopa de Gansos*) igoko dira Gurea Aretoko eszenatokira; eta martxoan, Bermúdez (*El Club de la Comedia*) eta Rafa Forner (*Comedy Central*). "Bira Euskal Herri osoan zehar egiten dugu, irailetik ekainera bitartean, eta Estatu mailako komikorik onenak ekartzen ahalegintzen gara", azaldu digu Ivánnek. Besteak beste, Astrabuduan, Gernikan, Aretxabaletan, Barakaldon eta Durangon itxi dituzte hitzorduak. "Gure helburua ez da bakarrik bakarrikzketak antolatzea. Komedia benetako protagonista

den guneak sortu nahi ditugu, jendeak barre egin dezan eta bakarrikzketen munduan "hezi" dadin".

Iván Pérez "Iván Ivenian" bezala da komedia munduan ezaguna. Txorierrin 2010. urtean jakin genuen berari buruz, *Izarren Distira* gazteei zuzendutako talentu lehiaketa irabazi zuenean. Harrezkero bakarrikzketagile aritu da eta

"Komedia protagonista den guneak sortu nahi ditugu, jendea bakarrikzketen munduan "hezi" dadin"

Bocabeats umorezko bikotea osatzen du Aitor Vidaurretarekin batera. Produktore bihurtzea era natural batean sortu da. "Beste aurrerapauso bat eman eta enpresa sortzeko proposamena nire agenteak egin zidan. *Encomediados* halaxe sortu zen. Hirugarren denboraldian gaudela murgilduta eta, egia esan, orain da lan gehien daukagun momentua. Eta Estatuko komikorik onenak ere prest daude gurekin lan egiteko".

Madrilekoen parean

Publizitatea eta Harreman Publikoak amaitu berri ditu Leioan, eta azken urteotan ikasketak, eszenatokia eta produktore-lanak uztartu egin ditu. Era berean, irratian aritu da kolaboratzaile. "*Encomediados* bezalako enpresa baten lan egiteak aukera ematen dit ikasitakoari lotutako lan asko egiteko. Oso pozik nago bertan. Batez ere hazten goazela ikusten du-

"Ehunaka pertsona zeure ateraldiekin barrez lehertzen daudela ikustea baino hoberik ez dago"



Juan Muñoz, Derion.

121.000 bistaratze

Ivánek bost urte daramatza komedia egiten; bera bakarrik hasieran eta Bocabeats taldean beranduago. Kasu bietan, Derioko Gurea Aretoan egin zuen debuta, eta urtarilean berriro igo zen hango eszenatokira, *Encomediados* zirkuituaren aurkezle ibili zelako. "Herritarrek zoriondu egin naute ondorengo egunetan ere bai".

Berak eta Aitor Vidaurretak bakarrik eta beat box-a (musika-oinarriak ahotsarekin egitea) uztartzen dituzte Bocabeats taldean, eta zerbait berezia egiteak komedia-zirkuituetan ateak zabaltzen ari zaizkio. "Oso komiko ospetsuak ezagutzen ari gara eta haiek ere hasi dira gure lana ezagutzen. Gozamen handia da eta,

gainera, haiengandik asko ikasten gabiltza".

Bikotea ospetsu bihurtu zen Gabonetan, Facebook-ean. Izan ere, euskarazko eta gaztelaniazko Gabon-kanten bertsioa egin zuten, reggaeton musika erabilita, eta bideoa gizarte-sarean ipini zuten. "Oso parodia dibertigarria atera zitzaigun eta aste betean 121.000 bista eduki genituen, 2.000 like, eta 2.000 lagunek baino gehiagok partekatu zuten bideoa". Hain zalaparta handia sortu zen, ezen Euskadi Irratitik eta Euskadi Gaztetik ere deitu zieten azalpenak emateko. "Whatsapp-en bidez ere zabaldu da, baina ez dakigu zelako hedapena eduki duen. Batzuek kaletik ezagutu eta guzti egiten gaituzte".

dalako". Hala ere, sektorea momentu zail batean dagoela aitortu du. "Lehen baino areto gutxiago dago eta daudenek aurrekontu txikia daukate. Gainera, komikoek gero eta eskari handiagoa jasotzen dute, eta zaila da bakarrik komedian lan eginez bizirautea. Hala ere, lan handia, eta ondo, egiten baduzu, proiektua aurrera eraman dezakezu, eta bizimodua ateratzen. Komiko askok esan digute zirkuitua oso ondo antolatu dugula eta erabat sendotuta dagoela. Halakoak bakarrik Madril edoartzelona zirkuituei buruz esan ahalko

lirateke, baina urteetan lan handia egin ostean, geuk ere lortu dugu kalitatezko umorezko zirkuitua antolatzea".

Bere lanarekin izugarri disfrutatzen duela esan digu, eta saririk onena, publiko adikorra dela, asko barre egiten duena eta txalo-zaparrada botatzen duena. "Ehunaka pertsona zeure ateraldiekin barrez lehertzen daudela ikustea baino hobirik ez dago. Zerbait ezberdina egiten duzunean, esate baterako Bocabeats taldean jorratzen dugun ikuskizun mota, eta publikoak hori baloratzen duenean, poz

handia izaten duzu. Bestalde, zaila da komedia egitea umore onean ez zaude nean, edo publiko errespetugabeari aurre egin behar diotzunean. Baina ez da Euskal Herriko publikoaren kasua; komiko guztiek azpimarratzen dutenez, bertokoa oso publiko adeitsua da". Oso lan dibertigarria eta atsegingarria da Ivánena eta, bere ustez, umorea gure bizitzako gauzarik inportanteena da. "Umorea gure bizitzako edozein egoerari lotu diezaiokegu, eta ezinbestekoa da geu zein inguruan dauzkagunak zoriontsuak izateko".

Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbitze Heziketa eta Elgoren Irakasgintzarako Ikastetxea

Urtzagia Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 01 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Maiatzaren 5ean eta 28an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOKO

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produktzioaren Programazio goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrolerako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

2016ko aurrekontua

MANKOMUNITATEA

Aurrekontua 7.577.653,45 eurokoa da eta bai gastuak, bai diru-sarrerak daude haren barne. Aurreko ekitaldiaren aurrean, % 2,17 jaitsi da. Aurten, beste helburu batzuekin batera, gogor egingo da hauen alde: enplegua sustatzea, prezio publikoak izoztea, zerbitzuak eta pres-tazioak optimizatzea, hondakin organikoak gaika biltzea areagotzea, baita autokonpostajea ere, eta euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea.

Gastuak:

445.817,18 €	I. KAPITULUA: LANGILEEN GASTUAK
6.717.810,07 €	II. KAPITULUA: ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK
3.717.676,11 €	Hondakinak biltzea eta tratatzea. Bideak garbitzea.
1.409.514,52 €	Argiteri publikoaren kudeaketa integrala.
898.829,00 €	SAD: Etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguneroko jardueretan euren kasa aritzeko zailtasunak dituzten familia edo pertsonentzat. EISE: Gizartean eta Hezkuntzan esku-hartzeko taldea. Familia-hezitzaileen zerbitzua. SEDIM: Ebaluazio, diagnostiko eta bitartekaritza zerbitzua. Adingabeentzako eta Familientzako Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua : Osasuna sustatzea, eta biztanleriaren bizi-kalitatea eta gizarte ongizatea hobetzea ditu helburu.
16.244,40 €	EPA Helduen Hezkuntza.
150.470,56 €	Euskara Zerbitzuko programak eta gastu arruntak.
84.718,35 €	Gaztedi Txorierri, musika lokala, programak eta proiektuak.
15.000,00 €	Berdintasun Zerbitzuko programak.
25.003,44 €	22 desfibriladore alokatzea eta mantentzea.
21.780,00 €	Txakur galduak edo abandonatuak biltzea eta mantentze-zerbitzua.
49.266,00 €	Sondika, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko Udalen eta Mankomunitatearen artxiboak mantentzea.
329.307,09 €	Beste batzuk: zerbitzu anitzen langileen gastuak, fotokopiagailuak alokatzea, egoitza mantentzea eta hornidurak (telefonoa, argiteria, bulegorako materiala), eta abar.
407.792,00 €	III. KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ARRUNTAK Behargintzari egindako ekarpena, euskara ikasteko bekak, gizarte-larrialdietako laguntzak, Totoan elkarteari eta Gurutze Gorriari diru-laguntzak eta abar.
6.234,20 €	IV. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK Edukiontz marroiak, altzariak eta ekipo eta programa informatikoak erostea.

FINANTZAZIOA:






Udalen finantzazioa:

	DERIO	LARRABETZU	LEZAMA	LOIU	SONDIKA	ZAMUDIO
LANGILEEN GASTUAK: 212.540,12 €	61.891,68 €	21.062,73 €	24.739,67 €	24.633,40 €	46.610,05 €	33.602,59 €
ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK: 6.106.641,62 €	1.568.643,62 €	508.011,96 €	561.391,78 €	906.200,14 €	1.343.088,15 €	1.219.305,97 €
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: 276.000,00 €	80.049,90 €	24.006,30 €	27.873,90 €	33.695,70 €	58.699,80 €	51.674,40 €
INBERTSIO ERREALAK: 5.000,00 €	1.456,00 €	495,50 €	582,00 €	579,50 €	1.096,50 €	790,50 €
GUZTIRA: 6.600.181,74 €	1.712.041,20 €	553.576,49 €	614.587,35 €	965.108,74 €	1.449.494,50 €	1.305.373,46 €

BEHARGINTZA TXORIERRI

Aurrekontua 836.702,78 eurokoa da, eta haren barruan bai gastuak, bai diru-sarrerak daude. 2016ko ekitaldirako gastuaren aurrekontua % 40 inguru igo da, aurreko ekitaldiaren aldean. Aurtun, "Eskualdeko Enplegu-Plana" egingo da. Halaber, diru-laguntzetako diru-sarrerak % 138 hazi dira, 2015. urteko ekitaldiaren aldean. Hala ere, fakturaziotik datozen diru-sarrerak % 11 jaitsi dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta.


AURREKONTUAREN FINANTZAZIOA:




UDAL EUSKALTEGIA

Aurrekontua 652.784,10 eurokoa da, eta barruan gastuak zein diru-sarrerak daude. 2016ko ekitaldirako aurrekontua % 3,15 jaitsi da, aurreko ekitaldiaren aldean. Udalek herri bakoitzean errol-datuta dauden ikasle-kopuruaren arabera egiten dute ekarpena.

AURREKONTUAREN FINANTZAZIOA:



UDALEN FINANTZAZIOA:



“Nire momenturik onenean nago”

JULEN LARRUZZEA | atleta

Julen Larruzea larrabetzuarrak apurka-apurka egin du bere kirol ibilbidea. Gaztetan korrikalari zale-tua zen; geroago, bizikletaz ibiltzen hasi zen; eta azkenik duatloiak eta triatloiak egiten ditu. Eta gainera irabazi egiten du: esate baterako, 2015ean Estatuko txapelduna izan zen. Julenek bere jarduera eta etorkizunari buruz hitz egin digu.



t: Gaizka Eguzkitza / a: ОИА ОИАЯИ

Zorionak iaz denboraldi ederra egin zenuelako: Estatuko mendi-duatloiko txapelduna, Europako txapel-dunordea, berriro irabazi zenuen Euskal Herriko mendi-duatloiko zirkuitua...

Bai, mila esker. 2014an erabaki nuen duatloiak eta krossak egin beharrean, mendi-bizikleta lasterketak egingo nituela. Izan ere, Europako txapelketa Castron izango zen eta horretan hartu nahi nuen parte. Beraz, 2015eko hasieran bizikletaz ibili nintzen, apur bat ikasteko. Ez nuen garaipenik lortu, baina pilo bat ikasi nuen. Eta gero emaitzak udazkenean etorri dira, zuk esan duzun moduan.

Eta aurten, zer? Erronka berri bila zabilta?

Bai. Mendi-duatloiek ez dute oihartzun eta sari handirik eta, horregatik, mendi-triatloia egitea erabaki dut, XTerra zirkuitua hain zuzen ere. Saio bakoitzean 1,5 km igeriketan egin behar dira, 30 km, mendi-bizikletaz eta 10 km, korrikan. Guztira, 12 saio antolatzen dira urtean. Nire buruari hiru lasterketako epea eman diot. Horietan maila nahikorik ematen ez badut, hau da, lehenengo bosten artean gelditzen ez banaiz, ez dut gehiagorik egingo. Eta ziur asko lehiaketak utziko ditut. Kirola egiten jarraituko dut, baina bizitza arrunta izango dut: asteburua lagunekin, lan arrunta, aita izatea behar bada...

Beraz, aurten XTerra zirkuitua izango da zure helburu nagusia...



Bai, kalkulatu dudanaren arabera, lehenengo bosten artean gelditzen banaiz, gastuen erdia lortu ahal dut. Oso esperientzia polita iruditzen zait: Europan zehar lehian sartu, hainbat jende ezagutu... Lehenengoa Maltan izango da apirilean; eta hurrengoak, Grezian eta Portugalen. Gogor nabil lanean, ordu asko igeri egiten, eta behintzat hiru horietara joango naiz. Gainera, Europako Txapelketa abuztuan izango da, Alemanian. Abuztuan Polonia eta Suediako lasterketak ere egiten dira eta agian hara joango naiz, elkarrengandik gertu-gertu daudelako. Nire errendimenduak esango du lehian non sartzen naizen eta noraino heldu ahal naizen. Aurten zerotik hasiko naiz eta eskarmentua hartu behar dut.

Duatloitik (bizikleta eta korrika) triatloiera (bizikleta, korrika eta igeri

*“Nire errendimenduak
esango du lehian
non sartzen naizen
eta noraino
heldu ahal naizen”*

egitea) aldatuko duzu. Zein nahiago duzu?

Duatloia, baina horretan oso mugatuta nago. Aurten bigarren aldiz antolatuko dute ofizialki Europako txapelketa, Errumanian. Hala ere, hara joan ahal izateko baldintza batzuk bete behar dituzu: adibidez, zure herrialdeko maillot ofiziala eraman behar duzu, eta hori federazioari erosi behar diozu, 70 euroren truke. Federazioak, aldiz, ez dizu erraztasunik ematen, ezta diru-laguntzarik ere: ez izen-ematea ordaintzeagatik, ez bidaia-tzeagatik... Lotsagarria da. Aurrerapausoa triatloiera ematen ez badut, ez dut motibaziorik izango, aurten Estatuko duatloiko txapelduna izan naiz-eta.

Ez daramazu bizitza arrunta. Sakrifizio handia da?

Ez, gustatzen zaidana egiten dudalako. Ez naiz lagunekin zerbait hartzera ateratzen eta normalean asteburuetan lasterketetan ibiltzen naiz. Baina horrek alde txarrak ere baditu: batetik, familiarentzat gogorra da; bestetik, oso garestia da, dena ordaindu behar duzulako: baime-

**TXO
LLOS!**

% 40ra arteko beherapenak,
erakusgai dauden produktuetan

koltxoak - koltxoi-oinarriak - oheak -
oheburukoak - oheko arropa -
Stressless besaulkiak eta sofak

Aparteko aukera

SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUITE DELUX
.com

DERIO | **LEIOA**
Derioko Seminarios 944 545 147 | La Avanzada, 80 944 316 516

nak, bidaiak, izen-emateak... Eta batzuetan arazoak izan ditut lasterketetan irabazten dudana kobratzeko. Gaur egun, horrelako maila altuan ibiltzea oso gogorra da kirol batzuetan.

Diru-laguntzarik duzu gastuei aurre egiteko?

Nahiz eta leku batzuetan eskatu –enpresa handi batzuetan, Bizkaiko Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan– ez dut laguntzarik jaso. Babesle bi ditut, Scott bizikleta marka eta Garri bikes Basauriko denda, baina txikiak dira eta ahal dutena egiten dute. Ondorioz, askotan sartzen naiz lehian, dirua lortzeko. XTerra zirkuituan sari ederrak banatzen dira kirolarien artean, bai lasterketa bakoitzean, bai urte bukaeran sailkapen orokorrean goiko postuetan daudenen artean. Eta gainera, 12 saioz osatutako zirkuituaz gain, egun bateko lasterketa antolatzen da, Europako txapelketa, eta sariak horretan ere oso onak dira. Horrela ordaintzen dut nik kirola.

Zelan zaintzen duzu zeure burua? Zenbat ordu entrenatzen duzu eguneoro? Entrenatzailerik duzu?

“Gaur egun, horrelako maila altuan ibiltzea oso gogorra da kirol batzuetan”

“Batez ere elikadura eta atsedena hartzen ditut kontuan. Oso zorrotza naiz”

“Kirolean ez daukat ametsik. Entrenatzea izugarri gustatzen zait eta horrela jarraitu ahal badut, ni pozik”

Batez ere elikadura eta atsedena hartzen ditut kontuan. Oso zorrotza naiz. Kirol errendimendua % 15-20 hobe daiteke elikaduraren bitartez. Gainera, materiala oso garrantzitsua da, eta baldintza onenetan izan behar dituzu bizikleta eta abarrekoko kontuak. Entrenamenduari dagokionez, ez dut entrenatzailerik, baina neska batek laguntzen dit igeri egiten. Gutxienez, ordu bi entrenatzen dut egunean, baina askotan, sei-zortzi ordu.

Eta zelan egiten duzu entrenatzeko eta lan egiteko?

Hamar ordu baino ez dut lan egiten asteen. Beraz, nahi beste entrenatu ahal dut. Zortzi orduko lan batean bazabiltza ezin duzu behar bezala entrenatu. Lana duzunean, dirua duzu, baina astirik ez; eta lanean ez bazabiltza, astia duzu, baina lehian kanpora joateko dirurik ez. Gorpil zoroa da. Gaur egun asteen zehar entrenatzen dut, eta asteburuetan lasterketetara joaten naiz saioa eta dirua irabazteko asmoarekin, irabazitako hori XTerra zirkuituan inbertitzeko.

Aurten 34 urte bete dituzu. Gaztea ala nagusia, kirol honetan ibiltzeko?

Gertutik

Julenen ama Larrabetzuko da eta bera ere bertan jaio zen, 1982an. Galdakaon bizi izan da eta gaur egun, lana dela-eta, Ispaster eta Larrabetzuren artean bizi da. Asteen zehar kirol monitore egiten du lan Ispasterren eta bertan gelditzen da lo egiten, baina asteburuetan Txorierrira itzultzen da.

Julen kirolaria da, betidanik. “Ikastolan futbolearen aritu nintzen, baina ondo egiten nuena korrika egitea zen. Anaiak ere korrika egiten zuen eta ni era serio batean hasi nintzen atletismoa egiten. Geroago lesioak izan nituen, korrika oso jarduera bortitza delako, eta zauriak osatzeko bizikletaz ibiltzea gomendatu zidaten. Eta zale-tasuna hartu nuen”.

2008an, bere grina biak, korrika egitea eta bizikleta, uztartzea erabaki zuen eta duatloiak egiten hasi zen. Bere errendimendua gero eta hobea



Tira, ez dakit. Hamabi urte nituela hasi nintzen kirola egiten eta gaur egun nire momenturik onenean nago. Egia da inoiz baino ondoen zaintzen dudala nire gorputza, eta inoiz baino gehiago entrenatzen dudala. Eskarmentua hartu dut, ezagutzen dut nire gorputza, bada- kit zelan eta noiz entrenatu....

Zein da zure ametsa kirol mun- duan?

Ez daukat ametsik. Entrenatzea da egiten dakidan gauza bakarra eta izu- garri gustatzen zait. Horrela jarraitu ahal badut, ni pozik. Egia esan, nire bizi- tzaren egunik onenenetarikoa izan zen iaz, Castron, Europa eta Estatuko txapelketetan parte hartu nuenean. Emaitza oso ona izan zen, familia eta lagun pilo bat joan ziren ni animatzera... Ametsak barik, gauza batzuk ditut bu- ruan, egin nahi ditudanak. Esate batera- ko, Mauin triatloi Munduko txapelketa egiten da, eta gustatuko litzaidake ber- tan parte hartzea, aurtengo maila nahiko- rik dudala erakusten badut. Halaber, epe luzean maratoinen bat egin nahiko nuke.



izan zen, eta 2014ean beste erabaki bat hartu zuen: mendi bizikletari ga- rrantzi handiagoa eman zion, Europa- ko Txapelketan behar bezala parte har- tzeko. Ostean, emaitza ederrak heldu ziren. Euskal Herriko mendi duatloi zir- kuitua 2014an eta 2015ean irabazi ditu, eta iaz zirkuituaren saio guztietan nagusitu zen. Hau marka! Gainera, 2015ean Estatuko txapelduna izan zen, eta Europako txapeldunordea ere bai. Aurtengo denboraldian salto egingo du mendi-triatloiera, XTerra Zirkuitura alegia.

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartelari eskubidea: 9-4
4113. Inulegia
48960 Oñate

Telefonoa eta faxa
94 454 64 98
a.amondarain@euzkadi.net

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias 24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

Mila arpegitako jaia

Inauterietan murgilduko gara datozen egunotan. Entzute handiena daukienak Sondikakoak dira, duda barik, baina gainontzeko herrietan be desfileak eta ekitaldi bereziak antolatu dira. Bideojokoko pertsonaiok, politikarien imitatzailleok, estralurtarrok, cowboyok eta indiarrok, superheroio, musikariok... kalera atera gaitezana, beraz.

Loiu

Otsailak 12, barikua

–19:00: Umeentzako ekintzak, Alonsotegi plazan.

–20:00: Desfilea eta poteoa. Ondoren, txokolatadea eta zozketea. Loiuko Baka-rrak eta Danontzat alkar-teagaz antolatua.

Derio

Otsailak 5, barikua (Eskolan)

–16:00: Puzgarriak eta umeentzako tailer-rrak. Gurasoen alkar-teagaz batera antola-tua.

Otsailak 6, zapatua

–11:00-13:30: Kultur Birikara mozorrotuta joan eta DAT-ekoek argazki-muntaia egi-tea.

–18:00: Mozorro Lehiaketea. Jatsierea eta dj-a, Sollube kalean. Danarik Paraje alkar-teagaz batera antolatua.

Lezama

Otsailak 6, zapatua (frontoian eta Leire Olanek girotuta)

–19:30-20:30: Lezamako artista-mozorro-en lehiaketea.

–20:30-21:30: Inauterien ginkana berezia: zaku lasterketea, abilezia probak...

–21:30: Afaria.

–22:30-23:30: Sariak banatzea.

–23:30-02:00: Disko Arima Eroa diskofes-tea.

Otsailaren 1etik 10era (Ludotekan)

–Mozorro eta maskara tailerrak, txotxon-giloak...

Zamudio

Otsailak 6, zapatua

–11:30: Mozorro tailerra, liburutegian.

–18:00: Tostada Lehiaketea eta erro-meria, Adintsuen Etxean.

–19:00: Desfilea, frontoian. Gaia: musikea. Inisitue gazte asanbladak antolatua.

–20:00: Kantuz kantu eta dantzaz dantza, herritik. Eta sorpresaren bat be bai. Inisitue gazte asanbladak antolatua.

Otsailak 7, domeka

–12:00: Mozorro Lehiaketea eta jaialdia, Ludotekan.

Otsailak 13, zapatua (Gazte Estazinoan)

–19:00: Photocall, lehiaketak, dasta-tzeak...



Larrabetzu

Otsailak 5, barikua

–Umeen desfilea, jolasak, erromeria... Txinpasmendi, Hori Bai eta Kultur Bilgu-negaz batera antolatua.

Otsailak 9, martitzena

–18:30: Inauteria, Gure Etxean.



Argazkiak: Jon Goikouria Larrabeiti.



Sondika

Otsailak 12, barikua

- 16:00: Txupinazoa eta jaien hasieria. Mozorro gaia: bideojokoak.
- 18:00: Umeen kalejirea, eskolatik herrira. Sardina eta buruhandiakaz.
- 18:30: "Xaibor" disko festa, umeentzat.
- 19:30: Txanpi-poteoa, txosnetan.
- 23:00: Kontzertua: Porco Bravo.
- 01:30: Kontzertua: The Bon Scott Band.
- 03:00: Las Tea Party Dj's.

Otsailak 13, zapatua

- 11:00: Umeen parkea, karpan.
- 12:00: Tostada lehiaketeta.
- 12:00: Kalejirea, fanfarre eta txistulariakaz.
- 16:00: Nagusientzako kafea, Nagusien etxean.
- 18:00: Erromeria, Nagusien etxean.
- 18:30: Umeen mozzorro desfilea.
- 19:00: Fanfarrea, herritik.
- 19:30: Umeen mozzorro, Tostada, Era-kusleio eta Marrazki Txapelketen sariak emotea.
- 19:30: Txokolatadea.
- 20:30: Kalejirea.
- 21:30: Sardinearen hiletea.
- 22:30: Kontzertua: Hardcore.exe.
- 23:30: Kontzertua: Alter Ego.



- 00:30: Erromeria.
- 01:30: Mozorro Txapelketaren sariak emotea.
- 03:30: Disko festa.

Ludoteketako programazioa

Mozorro-tailerrak, tostadak...

Gaztetxeko programazioa

Piñatea (otsailak 5) eta Inauterietako argazki dibertigarriak trukatzeta (otsailak 14).

HARAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 89
osteopatialasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarraun: Facebook-en

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusi, orokortu
Auzokoen kumutatuak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegok eta lokalak
Olinu amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bilera

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOROGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

*Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala*

Telefonoa 94 454 07 96 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO



Iñaki Aránguiz. Amistades peligrosas sobre el muro de Berlín.



Tania Viadas Acebes. Flauta.



Oihane Goienetxe. Mikro barik.

Europako Kultur Hiriburuaren parte

Donostia Europako Kultur Hiriburu da aurtien eta horren haritik antolatu diren ekitaldien artean, argazki erakusketa bat dago. Erakusketa Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak antolatu du, eta Euskal Herriko eta Errioxako argazki taldeak gonbidatu dituzte han parte hartzera. Talde horien artean, Derioko Argazki Taldea (DAT) dago eta hango taldekideek argazki-sorta bat aukeratu dute hara bidaltzeko. Argazkiak 1m x 1mkoak izango dira, eta orrialde hauetan Donostian ikusgai egongo diren argazkietariko batzuk daude. Derio eta, ondorioz, Txorierri ere Europako Kultur Hiriburuaren parte izango dira.



Txutxi. Zubizuri.



Inaki Aránguiz. Cervantes y Beavoir en el Siglo XXI.

KIM70
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaititza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAYA)

BOLALEKU
JATETXEA
Gaititza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Joraburu Facebooken
• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK

Club Hípico Aretxalde
Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aialdirako landak - Apogilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa
Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

Txutxi. Uriel.



Jose Rasero. Paso a la libertad.



Alberto. Txalaparta 1.



Jose Rasero. El color del holocausto.

Enaitz
TABERNA

Ogiltartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontuak doan
- Especialitatea: umeak



Iñaki Aránguiz. En recuerdo a Cifu.

t: Gaizka Eguzkitza

Naturarekiko maitasunak batzen ditu Pablo Mariz, Javier Fernández eta Xabier Solorzano. Naturak eta Politeknika Ikastegia Txorierrik, noski, bertan ezagutu zutelako elkar. Hirurek Ingurumen Heziketa eta Kontroleko goi-mailako zikloa ikasi zuten Derion, eta hori amaitutakoa, Azeri Natura enpresa sortu zuten, Politeknikako irakasleen laguntzarekin. Azeri Naturak ingurumen-hezkuntza, xendazetasun egokitua eta turismo inklusiboa eskaintzen ditu, besteak beste.

Proiektua erabat aitzindaria da. Alde batetik, partaideen heziketa oso berria delako. "Ingurumen Heziketa zikloa Derion eta Somorrostron baino ezin da ikasi Bizkaian, eta Txorierrin, azken hiru urteotan. Beraz, gure formazioa duten lagun gutxi daude", esan digu Pablok. Bestetik, Euskal Herri mailan zerbitzu bakar batzuk eskaintzen dituztelako. Adibidez, Azerikoak elbarrituak mendira eramateko gauza dira. "Gurpildun aulki berezi batzuk erabiltzen ditugu, mugikortasun-arazoak dituzten lagunak, Artxanda, Pagasarri edo Oiz mendietara eramateko".

Beste zerbitzu berezi bat hau da: ikastaroak eta erakustaldiak antolatzen dituzte hegazti harrapariekin, Harris arrano birekin, hain zuzen ere. "Leku batzuetan animaliak erabiltzen dira terapiak-eta egiteko, baina geuk bakarrik erabiltzen ditugu hegazti harrapariak. Horien bidez, zentzumenen estimulazioa lortzen dugu. Harrapariei buruz orduak eta orduak eman ahal ditut hitz egiten, baina zertarako balio du horrek, zuk zeuk lumak, begiak, atzaparrak zuzenean ikusten ez badituzu, hegaztiak hegan egiten zuzenean ikusten ez badituzu?", dio Javierrek, harraparien arduradunak.

Gainera, beste zerbitzu arruntagoak ere ematen dituzte: arrastoak eta aztarnak identifikatzeko ikastaroak, hitzaldiak,

"Balore ekologikoak transmititu dizkiegu bezeroei, haiengan naturarekiko maitasuna pizteko"

Natura denontzat

AZERI PROIEKTUA

Hiriak gero eta irisgarriagoak dira mugikortasun arazoak dituztenentzat edo desgaitasunen bat dutenentzat. Hala ere, lagun horiek oraindik badituzte arazo larriak naturatik mugitzeko. Egoera horri aurre egiteko, hiru gaztek Azeri Natura proiektua jarri dute martxan Txorierrin. Hemendik aurrera, edozeinek izango du naturaz gozatzeko aukera.



bisitak... "Ibilbideak landu ditugu, eta haietan lekuaren historia, zuhaitz motak eta bertoko animaliak azaltzen ditugu, besteak beste. Balore ekologiko eta naturalak transmititzen dizkiegu gure bezeroei, haiengan naturarekiko maitasuna eta errespetua pizteko", azaldu digute.

Multzoka

Enpresa duela hilabete batzuk jarri zuten martxan, eta tarte horretan denetarikozko bezeroak izan dituzte: enpresak, elkarteak, lagunak... "Normalean multzoka egiten dugu lan, zortzi lagunetik gora. Guk ekintza batzuk eskaintzen ditugu, baina neurriarekin egiten dugu lan, hau da, bezeroen beharrezan arabera. Esate baterako, neska batek esan digu aita Gorbeira eraman nahi duela, eta gu hori



egiteko lanean gabilta. Gainera, etorkizunari begira, eskolaz kanpoko ekintzak antolatu nahi ditugu eskoletarako".

Azeri Natura enpresaren egoitza Politeknika Ikastegia Txorierrin bertan dago, eta gure bailaran ere ari dira. "Enpresa

sortu genuenean, Txorierriko Mankomunitatearekin hitz egin genuen eta harremanetan jarri gaituzte hemengo taldeekin. Ondorioz, Gure Señeak elkartearekin batera ospatuko dugu Gaixotasun Arra-roen Eguna, otsailaren 28an, Derion. Hainbat ekintza antolatuko ditugu: xendazaletasun egokitua, arrasto-jokoa, hitzaldiren bat eta erakustaldi bat arranoekin”.

Gaur egun, ingurumen hezkuntza parketxeetan, hau da, ingurumena eza-gutzeko zentroetan baino ez da eskaintzen. Azeri Naturak ere ematen du, eta gainera, leku zehatz eta jakinetatik kanpo ateratzen du eta edozein tokitara eramaten du. “Urrats bat haratago joaten saiatzen gara. Askotan, jendeak uste du naturaz gozatzeko, mendira joan behar dela, baina hori ez da egia. Esate baterako, guk leku itxietara eraman ditugu arranoak”.

Azeri Naturakoek leku guztietara ez ezik lagun guztiengana ere gerturatzen dute natura: ibili ahal diren, elbarritu, itsu, gor, ume, nagusiengana... “Parketxeetako instalazioak elbarrituentzat egokitu dituzte, baina besterik ez. Bideoek ez dute azpiztitulurik, ez dute gureak bezalako aulkirik, argibide-taulak ez daude braille hizkuntzan.... Guk, esate baterako, pote usaindunak ditugu eta fitxa batzuk lantzen gabiltza braillean, eta ahal izanez gero, soinua ere gaineratuko dizkiegu. Erraza da esaten zerbitzu bat egokituta dagoela, baina zaila, hori benetan egiten. Guk esfortzu handia egiten dugu benetan guzti-guztiengana heltzeko”.



Natura bokaziotzat

Pablo Mariz (Bilbo, 37 urte). “Txikitatik natura gertu-gertu izan dut eta beti gustatu zait. Lehen metalgintzan egiten nuen lan, baina langabezia gelditu nintzenean, nire benetako bokazioaren bila ibili nintzen, natura, eta horregatik joan nintzen Politeknika Ikastegira, Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko zikloa ikastera”.

Javier Fernández (Armintza, 28 urte). “Gaztetan apur bat galduta nengibilen, ez nekien zer egin edo ikasi. Natura beti izan da oso garrantzitsua

niretzat eta horregatik zikloan sartu orduko, argi nuen horretan lan egin behar nuela”.

Xabier Solorzano (Arrigorriaga, 28 urte). “Oso mendizalea naiz, ia astebururo joan behar dut mendira; bestela, haserre ibiltzen naiz aste osoan zehar (kar, kar). Hasiera batean, Topografia ikasi nuen, naturan lan egin nahi nuelako. Baina karrerak ez zuen horrekin zerikusi handirik, eta azkenean Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko zikloa ikasi nuen”.

Konekta zaitez gurekin!

aikor!
Txorierriko Aitzindaria



Facebook:

aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:

@AikorTxorierr



Webgunea:

www.aikor.com



Zaindu, modu errealista baten

Urte barri, asmo barri. Gehiegikeriak egin doguz Gabonetan, eta gutariko asko serioan hasi gara gimnasioan eta dietagaz. Beste batzuok, osterantzean, jateko ohitura osasungarriak hartzeko proposamena egin deutsagu geure buruari, baina oraindino ez gagoz plazer txiki horreei uko egiteko prest. Gaur, bihar edo etzi hasi, profesional baten aholku bila joatea da zentzuzkoa, eta horrexegaitik jo dogu Izpilen Sondikako belardendara.

t/a: Itxaso Marina

Leire Aburto Izpilen dendaren jaubea da eta berari azaldu deutsagu zein dan gure helburua: hainbeste turroi eta cava hartu ostein, gure gorputza desintoxikatu eta hartu dogun kilo pare hori galtzea. "Kalte handiena jasoten dabenak gibela eta kuntzurrunak dira. Beraz, organu horreei laguntzen deutesen arazgarriak hartzea da gomendagarria, esate baterako orburua eta errefau baltza, edo Kildetox moduko produktuak". Era berean, aholku txiki batzuk emon deuskuz, gixtinez 15 egunean jarraitzeko: batez be saldak, infusinoak, frutak eta barazkiak hartzea, eta zerealen eta egoskariaren kontsumoa murriztu. Baita animalia-jatorriko proteinaren kontsumoa be. "Beste aukerarik ez badago, hobe da oilaskoa edo arraina hartzea. Goizean, limoi-ur apur bat ur epelagaz hartzea be bada lagungarria gure organismoa desintoxikatzeko. Gainera, libratzen lagunduko deusku, eta gure immunitate-sistemak behar dituan bitaminak mantentzen".

"Bakotxaren bizipenak kontuan hartu behar dira, guztiok jarraibide berberetara ez garalako bardin egokitzen"

Oinarrizko jateko ohitura eta biziaztura osasungarriak badaukaguz, hala nola egunean bost otordu egin, ura edan, gantz ase gixti hartu, frutak eta barazkiak jan, eta ariketa fisikoa egin, erraza da gure helburua betetea. Baina, zer gertatzen da gure ohiturak osasungarriak ez direnean, eta sobra daukaguzan kiloak elikadura txar baten ondorio direnean? Ba, horretan Silvia Enrique Novaline metodoaren nutrizio-aholkulariak lagundu ahal deusku.

Kiloak galdu gura izateak ez ezik, beste faktore batzuek be eragin daikie gure egunerokotasunean jateko ohitura



"Geure buruari 'omenaldi' bat emon gura badeutsagu, horrek kontzientea izan behar dau, alhadura barik"

osasungarriak ezarri gura izatea, besteak beste osasunari lotutako arazoak edo ondo jaten ikasteko gogoak, besterik ez. "Ezinbestekoa da persona bakotxari arreta pertsonalizatua emotea. Halan, lehenengo eta behin, oso inportantea da bakotxaren helburuak aztertzea, eta helburu horreek, gainera, errealistak izatea, eta osasunari lotuta egon". Paziente edo bezeroaren profila, osasun-egoerea eta osasunari lotutako aurrekariak aztertu ondoren hasten da ohituretan aldaketak ezartzen. "Aldaketa txikiak dira hasieran eta helburuak bete ahala hareek handitzen goaz, eta elikadura aldatzen. Oso inpor-





tantea da bakotxaren bizipenak kontuan hartzea, guztiok jarraibide berberetara ez garalako modu bardinean egokitzen. Bakotxak bere erritmora joan behar dau eta bere helburuak finkatu". Lanak edo aisialdiak be eragina daukie jarraibideak ezarteko orduan. "Astelehenetik barikura etxetik kanpo jaten dauen persona baten egoerea eta barazki-jale baten egoerea, adibidez, oso bestelakoak diralako. Eta zapatuetan afaltzera aterateko ohitura badaukagu, afari horretarako daukaguzan aukerak zeintzuk diran be aztertu behar dogu, eta era desegoki baten afaltzea ekidin ezin badogu, hurrengo egunetan zein jarraibide ezarriko dogun erabagi".

Sen ona

Izan be, kakoa ez da gure bizimodua eta ohiturak goitik behera aldatzea, bai-zik eta pixkanaka-pixkanaka ohitura barriak sartzea, gure helburuak modu erosoan bete ahal izateko. "Eta inoz geure buruari "omenaldi" bat emon gura badeutsagu, horrek kontzientea eta borondatezkoa izan behar dau, alhadura barik eta hurrengo egunean zorrotzagoak izan beharko dogula jakinda". Aurrerapenak hamabost egunik behin aztertzen dira eta orduan da momentua aldaketarik egin behar dan erabagiteko, eta sortu daitekezan arazoei zelán egin aurre finkatzeko. "Coucher-aren figura be bada garrantzitsua, pazientearen sostengua garalako; lana, noski, berak egingo dau, baina guk laguntzea emon eta lana erraztu egingo deutsagu. Gainera, dieta bat Internetik atera daikegu gaur egun, baina inportantea da jakiak buztartzen jakitea, ona dana kaltegarria izan daitekela, jaki ez egokiakaz nahasten bada".

Bisitak bakantzen joaten dira, helburuak bete eta ohitura osasuntsu barrietara egokitzen garan heinean. "Ohitura txarrak aldatu behar dira eta ez da bape erraza, jakina. Halanda be, poz handia emoten dau denporean iraunkorra izango dan ohiturea finkatzeak. Ohitura onak mantentzea ezinbestekoa da; osterantzean galdu doguzan kiloak barriro hartuko doguz. Sen oneko kontua da". Sen ona erabili daigun, beraz, eta zer egin eta zer lortu gura dogun be hasiera-hasieratik argi euki daigun. Emaitzak horren arabera-koak izango dira.



25 urte, mendirik mendi

GAILUR MENDI TALDEA

Aurten, ospakizunetan murgilduta ibiliko da Gailur Lezamako mendi taldea, 25 urte dalako taldea sortu zala. Urteurrena aide barriakaz ospatuko dabe; izan be, 2013. urtearen amaieran hausnarketa-prozesu bat ipini eben martxan eta, horren ondorioz, lan-ildo eta helburu barriak finkatu ziran. Urteurrena aprobetxauz, taldearen etapa barrira hurbildu gara.

t: Itxaso Marina / a: Gailur mendi taldea

Mendi taldetik azaldu deuskuen moduan, taldearen konpromisoak ezagutzea hartu eben hasieran eginkizuntzat, hau da, egoera ekonomikoa, Bizkaiko Federazioagaz eukiezan hartu-emonia eta betebeharrak, eta bazkideen profila ezagutzea. "Datu guztiakaz lan dinamika propioa sortu genduan. Alde batetik, gure sustraletara bueltatzea ezinbestekoa zala ikusi genduan, Lezamagaz eta lezamarraz geunkan konpromisoa betetea. Horik etorriko ziralako klubaren barritapea eta etorkizuna. Halan, komunikazio dinamika iraunkor bat ipini genduan martxan, eta ahaleginak egiten gabilz, gure ekitaldiak Facebook, webgune, kartel, prentsa edo beste bide elektroniko batzuen bidez herritar guztiengana helitzeko. Bestalde, Eskolako Mendi Taldearen Programa sortu dogu gurasoen alkar-

teagaz batera, eta 30 ume baino gehiago batzen dira bertan. Zaletasuna landu gura dogu bai umeakaz bai euren gurasoakaz". Hausnarketa prozesuaren ondorioz, batzorde kudeatzailea desegin eta 2013. urteko batzarrean zuzendaritza barria eratu zan.

Prozesuak taldearen egunerokotasunean euki dauan emaitza ona ikusteko,

igazko datuei erreparau baino ez da egin behar. Gailurrekoek 25 urteera baino gehiago egin zituen, eta parte-hartzeak gora egin dau egun bateko urteeretan (batez beste 11 persona) zein egun bat baino gehiagoko urteeretan (batez beste, 12 persona). Guztira, 127 lagunek hartu dabe parte egun bateko urteeretan, eta 48 lagunek egun bat baino gehiagoko urte-

*"Gure sustraletara
buelatatzea ezinbestekoa
zan ondorioa atera
genduan hausnarketa
prozesutik"*



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Centro Dental
Txorierri
DPS, ADE

IMO
AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine E, behea - 48150 - Sondika (getokiarren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com


Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

eretan. Eskolako Mendi Taldearen ekin-
tzeak daukien arrakastea aitatzeari be-
merzi dau. Hareetan 335 lagun ibili ziran joan
dan urtean; batez beste 42 persona.
“Emakumeen parte-hartzeak be goraka-
da nabarmena euki dau eta % 45ekoa da
gaur egun. Era berean, bazkide kopurua
handitu da igaz, eta 218 bazkide egon
gara. Hareen % 60 lezamarrak dira. Fede-
rauen zenbakiari jagokonez, harek be %
6ko gorakadea euki dau”. Datuakaz pozik
azaldu dira, beraz. “Uste dogu berreskura-
tu dogula herrian geunkan presentzia.
Zaletasunaren haziak be ereiten gabilz
eta, hori epe luzerako izan arren, hasi ga-
ra emaitzak jasoten”.

Etorkizunari begira

Datuek eta emaitza onek adoretuta,
ekitaldi sorta zabala antolatu dabe urteu-
rrenaren haritik, eta urte osoan zehar ibi-
liko dira ospakizunetan murgilduta. “Oso
ekimen aberatsak dira eta hil bakotxean



bat egingo da. Batzuek kutsu sentimentala daukie eta klubaren sorrerari lotuta dagoz. Heziketea eta segurtasuna be landuko dira. Unerik biziena irailaren laugarren astebururako gorde dogu. Lezamar guztiei zuzendutako ekimenak antolatze-ko asmoa daukagu, danok batera, eta jaialdi handi baten bidez, gure 25. urteurrena ospatzeko”. Alkarteak herriagaz eta herritarrakaz daukazan loturak oraindino

gehiago estutu gura dabez, “emon deuskuena zelanbait bueltau”, eta urteurrena aukera ezin hobea da horretarako.

Etorkizunari begira be badabilz Gailur-
rrekoak, eta esan deuskue lehen aitatuta-
ko datu onek ez dabezala itsutu, eta
oraindino badaukiezala landu beharreko
arloak. “Hamazazpi urtetik 35 urtera arte-
ko lezamarrak erakarri behar doguz men-
di zaletasunera, eta gure arloan be, men-
dian, hainbat gauza dagoz egiteko, ema-
kumeen parte-hartzea eta bardintasuna
sustetako. Horrezaz gainera, kezkatzen
gaitu gu ordezkatzeko gaituan jente barri-
rik ez egoteak. Badakigu hori talde guz-
tiek daukien arazoa dala, baina uste dogu
ordezkatzeko normalizauak, ez traumatiko-
ak, antolatzen hasteko beharra daukagu-
la”. Horreek dira hain zuzen be datozen
urteetarako taldeak daukazan erronkak.
Ospakizunetan ibili arren, ez dira erlaxau-
ko, eta gogor egingo dabe lan, erronkoi
heltzeko.

Ospakizun ekitaldiak

Hogeta bostgarren urteurrena ospatzeko ekitaldi-sortari urtarrilean bertan emon deuskie hasikerea. Urteera bat egin eben Mugarra mendira. Hurrengo hilabeteetarako honeek antolatu dabez:

–**Otsailak 13 eta 14:** Alpinismoaren hastapenei buruzko ikastaroa.

–**Martxoak 19:** Txindoki mendira urteerea.

–**Apirilak 17:** Ganekogorta mendira urteerea.

–**Maiatzak 8:** Bizkargi mendira urteerea.

–**Ekainak 11 eta 12:** Europako Mendietara urteerea.

–**Uztailaren 23tik 25era:** Pirinioetara urteerea (Panticosa).

–**Abuztuaren 21etik 27ra:** Pirinioetara urteerea (Ainsa, Benasque).

–**Irailak 23:** Ikus-entzunezkoa.

–**Irailak 24:** Lezamako iturrietatik urteerea.

–**Urriak 29 eta 30:** Orientatze-ikastaroa.

–**Azaroak 26:** Itxina mendigunera urteerea.

–**Abenduak 17:** Batzar orokorra.

Aitatucoe gainera, ohiko argazki lehiaketea be antolatu dabez, paisaje eta erretratu kategorietan. Lehiaketea bazkideei zuzenduta dago eta lanak abenduaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira. Informazio gehiagorako: gailurmt@outlook.com eta gailur.org.





EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
daga
edaria

9€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



TRIPPY
TABERNA

Espezialitatea:
GIN TONIC

Behoko kalea - DERIO



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Lezamak eta Larrabetzuk bezala, Deriok ere bat egin zuen Ondarearen Europako jardunaldiekin. Dakigunez, gaia "burdina" izan zen, eta herriak material horrekin duen lotura erakusteko, DerioKOMunikazio taldetik ekitaldi saila antolatu genuen.


Burdinaren ibilbidea, Derion



t/a: DerioKOMunikazioa

Iñigo Aurrekoetxea "Gotxa" derioztarra harri zulatzailea da eta oso titulu garrantzitsuak lortu ditu kirol horretan; Euskadiko txapela, tartean. "Gotxa"-k Ondarearen Europako Jardunaldien ekitaldi sailari hasiera emateko ardura izan zuen. Hala, erakustaldi bi egin zituen: bata, laztabina erabilita; eta bestea, ingudea erabilita. Laztabina burdin-meatzetan erabiltzen zen, harrian zuloa egin eta han dinamita ipintzeko, eta, horrela, burdina atera ahal izateko. Ingudea errementarien lanabesa zen eta burdina lantzeko erabiltzen zuten. Haiek ere tresna horiekin biekin saiatu ostean, bisitariek Derioko eskulturazko multzorik garrantzitsuenetariko bat ezagutzeko aukera izan zuten.

Eskulturazko multzo hori udal pilotalekuaren aurrealdean dago eta Eneritz Amondarain derioztarrarena da. "Pelotari" du izena eta burdinazko hamaika eskultura dinamikoek eta koloretsuek osatzen dute; emakume batek eta hamar gizonek. Eneritzek lan horren zehetasunak azaldu zizkien parte hartzaileei, eta berezitasun moduan esan dezakegu eskultura guztiek beren alanbrezko maketa dutela. Tona bateko eskulturazko multzoa da eta hori



egiteko, etxeko guztien laguntza behar izan zuen eskultoreak. Lanak oso ondo jasan du denboraren igarotzea; hala ere, aurtun berriztatu egingo da.

Hildakoen trenea

Trena XIX. mendearen amaieran ailegatu zen Deriora, eta horrek herriaren hazkundea ekarri zuen. Bilboko hilerria

trenbide ondoko lursailetan ipini zen eta trenbidearen etorkizuna hilerriari lotuta egon zen. Juanjo Olaizola Burdinbidearen Euskal Museoaren zuzendaria da, eta oso hitzaldi interesgarria eskaini zuen Kultur Birikan. Bere ahotik jakin izan dugu "Derio" izeneko tren-makina bat egon zela, eta azalpenak eman zizkigun hileta-bagoiei buruz. Lehenengo, bigarren eta hi-

rugarren klaseko hileta-bagoiak zeuden, eta lehenengo klasekoek kapera eta guzti zeukaten. Bestalde, Erriberako merkatura bendeja eramaten zuten baserritarrentzako bagoia ere bazegoen. Hitzaldian, Calzadaseko tren-geltokia ere hizpide izan zuen Olaizolak. Munduan, kapera zeukaten oso tren-geltoki gutxi zeuden eta Deriokoa horietako bat zen. Gainera, XX. mendearen lehenengo urteetan geltoki intermodal bihurtu zen, handik Mungia arte diligentzia-zerbitzua eskaintzen zelako.

Tanaturismoa

Nolanahi ere, interes handiagoa piztu zuen ekitaldia Bilboko hileritik egin zen bisita gidatua izan zen. Hilerrian, Chávarri, Ibarra, Echevarría edo Martínez Rivas bezalako oligarka bizkaitarren hilobi-monumentuak daude. Oligarka horiek, beste batzuen artean, Bizkaiko Labe Garaiak (AHV) eta La Naval ontziola sustatu zituzten. Era berean, Mogrobejo, Durrio eta Quitín de la Torre eskultoreen lanak ere ikusgai daude bertan. Ramón Rubial, Tomás Meabe, Felipe Caballero eta Indalecio Prieto sozialisten hilobiak ere bisita daitezke Derion. Azken horrek, gainera, lotura handia eduki zuen herriarekin, erbesterratu baino lehen, Derioko baserri batean ezkatututa egon zelako. Trenbidearekin ere eduki zuen lotura, II. Errepublikan Herri lan eta Garraio ministroa zela, trenbidearen garapena sustatu zuelako.

Hilerriko hormetan hainbat lagun fusilatuta zituzten Gerra Zibilean eta bisita aprobetxatu zen fusilamendu horiek gogora ekartzeko. Baita Oiz mendiko istripuaren (1985) eta Munduko Zirkuaren istripuaren, Bilbon (1912), biktimen omezez egindako mausoleoak bisitatzeko ere. Tanaturismoko ekintza hau oso arrakastatsua izan zen eta, sortu zuen interesa ikusita, bisita bi egin ziren: bata, kanpotarrei zuzenduta; eta bestea, derioztarrei.

*Munduan, kapera
zeukaten oso
tren-geltoki gutxi
zeuden eta Deriokoa
horietako bat zen*



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonia 94.453.64.13

ANTZERKIA

PINTTO PINTTO

50' EG-3
Anita Maravillas Teatro & Portal 71
Txotxongiloak, testu barik
Otsailak 28, 17:00
Prezioa: 6 €





**ALVIN Y LAS ARDILLAS:
FIESTA SOBRE RUEDAS**
86' AG (2D)
Otsailak 7, 17:00



LOS ODIOSOS OCHO
167' EG-18 (2D)
Otsailak 7, 19:30



**CAPITAN DIENTE DE
SABLE Y EL TESORO
DEL LAMA RAMA**
96' AG (2D)
Otsailak 14, 17:00



LA GRAN APUESTA
130' EG-12 (2D)
Otsailak 14, 19:30



PESADILLAS
103' EG-7 (2D)
Otsailak 21, 17:00

EMBARAZADOS
100' EG-12 (2D)
Otsailak 21, 19:30

EL RENACIDO
156' EG-16 (2D)
Otsailak 28, 19:30

ZINEA







2D: 4 € 3D: 6 €

*Oñarri: produktoreen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasai ditzake

Zurekin hitz egin nahi dut

Hala dio Mintzalagun egitasmoaren leloak, eta Txorierriko berbalagunok horretaz baliatu gara zuregana jotzeko. Izan ere, zurekin euskaraz hitz egiteko gogo handia daukagu. Euskaraz hitz egin eta euskaraz bizitzeko gogo handia.

Mitzalagun, Berbalagun, Solaskide... Egitasmoak izen ezberdinak hartzen ditu herriaren arabera, baina guztiek helburu bera dute: euskaraz hitz egiteko ohitura daukaten lagunak ohiturarik ez daukatekin harremanetan ipintzea. Gaur egun, 6.000 lagun inguruk hartzen dute parte Euskal Herri osoan hedatutako egitasmoetan.

Euskara praktikatu eta gure hizkuntza zabaltzeaz gainera, berbalaguna izateak balio erantsia ere ekartzen dizu, besteak beste, hobetzen laguntzen dizulako edo beste lagun bati hobetzen laguntzen diotzulako, lagun berriak egiten dituzulako eta dibertitzen zarelako. Nahikoa da asterik behin, ordubetez, lotzea, nahien duzuna euskaraz egiteko: pasieran ibili, kafe bat hartu, parkean solasean lasai-lasai egon... Baina ez hori bakarrik, egitasmoa gurean sortu zenetik, Txorierriko berbalagunok hainbat ekitaldi antolatu ditugu; esate baterako, mendi irteerak, sukaldaritza ikastaroak, afariak, lehiaketak, perretxikotan ibili, astronomia ikastaroa, txakolindegia bat bisitatu... Eta datozen hila-beteetan ere dinamika horretan jarraituko dugu. Hala, errota bat bisitatzeko asmoa daukagu, museora joan, sukaldaritza ikastaro bat egin...

Datozenak

Otsailean, hain zuzen ere, ekintza bi edukiko ditugu. Otsailaren 3a San Blas da eta gu Abadiñoraino hurbilduko gara, hango merkatua ezagutzeko. Egun erdiko ekitaldia izango da eta goizean egingo dugu. Bestalde, otsailaren 18an Euskaltzaindia euskararen akademiaren nondik norakoak ezagutzeko aukera edukiko dugu. Hala, bisita gidatua egingo dugu bere instalazioetatik, eta hitzalditxo bat ere emango digute, akademiaren eginkizuna hobeto ezagut dezagun. Hitzaldia- ren ostean, Osoko Bilkura gelara igoko

*Otsailaren 3an
Abadiñora joango
gara; eta 18an,
Euskaltzaindiaren
egoitzara*

gara eta bertan dauden margolanez baliatuta, euskaltzainburuen historia eta datuak ezagutuko ditugu. Azkenik, Azkue Biblioteka bisitatuko dugu eta Artxiboko irakurle gelan Luis Luciano Bonapartek egindako euskalkien mapa originala ikusiko dugu. Bisita gidatua izena emateko epea otsailaren 11n amaituko da. Era berean, ekintza bietan izena emateko, ohiko telefonora deitu behar da. Zuk ere nahi duzu gurekin hitz egin? Animatu, beraz, Berbalagun egitasmoan parte hartzera eta Txorierriko euskaldunen sarea handitzera.



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea





Txorierrri BHI Institutua eta Baserri Antzokia (II)

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Jesus Altuna antropologo ospetsuak zioen, iraganarekin bat datorren etorkizuna sortu behar dugula. Gaurko gaian, auzolanak garrantzi handia izan duela gure etnial. "Gogoratzen naiz –dio– orain dela hogeita bost urte, Garesko plazako sarreran irakurritakoa: *Esta plaza se ha renovado en auzolan*". Gainera, itauntzen du: "Kooperatibismoa ere non dago zabaldua? Hemen, ezta?". Beraz, haren berbak geure eginez, "iraganarekin bat datorren etorkizuna sortu behar dugu auzolanaren gaian ere".

Txorierrriko haranean badira gunek bi –beste askoren artean–, zeinetan iraganak eta etorkizunak topo egiten duten, alegia, Txorierrri Institutua eta Baserri Antzokia. Esan ohi du Angel Serranok –Gurasoen Elkarreketako *leader* historikoak–: "Txorierrriko eskoletako IGE/AMPAko gurasoen parte-hartze zuzenik barik ez litzateke existituko institutua". Zer dela-

eta? Bada, erakunde publikoen hasierako erantzuna honelakoa izan zelako: "Zentro pribatu asko da inguruan batxilerra egiteko; zertarako institutua?".

Geroago, eraikuntza zutik zenean, hasieretako irakasle batzuk Gasteizera jo eta Institutua D Ereduko bilaka zedin lortu genuen. Horretarako arrazoia? Ikastolarik ez geneukala Txorierrin.

Eta Baserri Antzokia? Antzeko auzolana, irakurle. Desberdintasuna, instituturako amak eta aitak ekin zutela, eta BANerako talde eragile jakin batek jardun izan duela. Berba laburretan adierazirik, berez, nonor itaurrean izan ez balitz ez zela sortuko Baserri Antzokia ere, ezen alkate batek esan baitzuen: "Baina, euskararen alde zer gehiago egin leiteke? Ez dogu nahiko egiten ala?"

Etorkizuna geure esku ere badago. *Laissez faire, laissez passer* oihanetarako eder duzu, lagun; ez, oster, hizkuntzetarako nahiz kulturarako.

TURREGOITI
JATETXEA
Laurroeta etorbidea, 27
48160 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitia.com

elekma
URRATZEN BAT DUTEN ETAKETAKO ELEKTRIKO BERRAK,
TELEBISTAK ETA ETAKETAKO ELEKTRIKO TOSAK
Leherengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasorri etorbidea, 25-3 N • 48160 Leku
T: 944 539 332
www.elekma.es

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Etxeko sukaldaritza

Itsas zapoa plantxan,
zigala eta zizakaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Itsas zapoaren 8 buztan zati, hazurragaz (bakotza 125 gramokoa).
- 200 g ziza (tiratan ebagiak).
- 12 zigala zuritu (azalak eta buruak gorde).
- Azenario bat (zuritua eta tiratan ebagia).
- 150 gramoko kalabazin bat.
- Orioa eta gatzia.

Prestetako errea:

Zartagin baten, orio apur bategaz, azenarioa eta kalabazina erregosiko doguz. Biguntzen diranean, zizak gehituko doguz eta apur bat erregosiko dogu. Beste zartagin batean zigalen azalak eta buruak fritituko doguz. Plantxea zartagin horren orioz igurtziko dogu. Itsas zapoari gatz apur bat botako deusagu alde bietatik, eta plantxan erreko dogu. Zigalak be plantxan erreko doguz. Plater bako-txean barazkiak ipiniko doguz; eta hareen gainean, zapo zatiak; eta azkenik, zigalak.



Aza-zopea

Osagaiak:

- Aza bat.
- Sei kipula handi.
- Piper morro bi.
- Sei tomate.
- Apio (pakete bat).
- Gatzia.
- Piperbaltza.

Prestetako errea:

Lehenengo eta behin barazkiak ebaziko doguz. Eltze batera ura bota eta surtan ipiniko dogu. Barazkiak gehituko doguz, eta gatzia eta piperbeltza botako doguz. Ura irakiten hasten dan arte itxarongo dogu eta ondoren, 10 minutuan eukiko dogu egosten. Gero, 30 minutu inguru eukiko dogu su txikian, harik eta gure gustukoa dan loditasuna hartzen dauan arte.

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
tortak
pastelak
pastak
Mikel Zurats, 2 - 3. larrea • Sondika, 48150 • 94 453 89 19

Consulting
Gondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 473 746
Mitxel, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cely, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



Zer irakurri?

Josune Aurrekoetxea (Liluratura taldea)

Idazlea: Migel Anjel Mintegi Larraza.

Ilustratzailea: Inma Mendiola.

Genero: Beltza.

Argitletxea: Ekin Ibaizabal.

Orrialde kopurua: 148 (8 kapitulu).

Adina: 15 urtetik gorakoentzat.

Ekaina da. Ikasturtea amaituta, udako oporrak heldu dira. Zoragarria! Lagunak! Herri gehienetako festak! Festa gogo ikaragarria bihotzean! Sei lagun, hiru bikote, motxilak bizkarrean, kanpin batera abiatzen dira. Lau egunetan zehar seiak haien kasa ibiliko diren lehenengo aldia da. Haien poza! Rock kontzertu batera joango dira.

Gaupasa egiteko dena prest dutenean, Leire ezagutu berria duen mutil batekin desagertzen da etxarte ilun eta giro ez oneko batean. Beste lagunak, kezkaturik, bere bila hasten dira kontzertuan, herrian... Larriena Leire non eta nola dabi-

A zer gaupasa!

len ez jakitea da, eta aurkitzeko esperantza gero eta txikiagoa da. Herri horretan, beste askotan bezala, zoritxarrez, droga arazoa ez da txikia batez ere udaroan eta, zer esanik ez, festetan, egun bezalako kontzertu bat dagoenean. Leirek ezagutu berria duen mutila mundu horretan sartuta dagoela susmatzen dute lagunak.

Kale estu eta ilun batean sartzen dira norbaitek neska ikusi duen galdetzen, eta labana eskuan daraman hango mutil batek, mehatxatuz, alde egiteko esaten die, bestela Leire... Bi aukera dute: labana daukan mutilak esan bezala, Leire ahaztu eta kontzertuaz gozatu, ala tipo haren mehatxuari entzungor egin eta bilaketa-rekin jarraitu. Erabakiren bat hartu behar dute.

Makina bat gorabehera eta arrisku pasa beharko dute Leire aurkitu arte. Festak eta gaupasak daukaten alderdi



iluna erakusten zaie. Baina jo eta ke arituta, laguntasuna eta maitasuna nagusituko dira zoritxar guztien gainetik.

Droga trama honetan idazleak oso ondo deskribatzen du drogaren inguruan sortzen den giroa (drogadiktoak, marginalitatea, auzoak, banatzaileak...) eta ezberdintasuna (droga trafikante dirudunak eta kaleko banatzaileak errekurtsorik gabe kale gorrian...).

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 43

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegetan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituen gaitasunak eta erantzukizunak bere gain hartuko ditu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



Marketin

Argitalpenak

teef
totoan



Komunikazioa

Ekitaldiak